

SUGE-HOZKADA BATEN KASUAN LEKUAN BERTAN EGIN BEHARREKO TRATAMENDUA

1. SUGEA IDENTIFIKATZEA

Baliagarria izan daiteke, baina, aldi berean, baita arriskutsua ere. Irtenbide ona izan daiteke argazki bat ateratzea. Identifikatzeko ahalegin horretan, ez da komeni beste hozkada bat pairatzeko arriskurik hartzea.

(Zenbait tokitan, animalia harrapatzea lagungarri izan daiteke, haren pozoia ikertzeko eta antidotoa aurkitzeko; gure ingurunean, ez da beharrezkoa, tokiko espezieen hozkaden aurkako serumak badaude eta)

2. LEHEN SOROSPENAK

Dakigunetik hasiko gara beti:

a. LEKUA BABESTU

(egoerak okerrera egitea eragotzi)

b. LEHEN MAILAKO BALORAZIOA

(arnasa hartzen duen, zirkulazio-zeinurik duen)

c. DEITU, LAGUNTZA ESKATUZ (112)

Laguntzeko baliabideak aktibatzeaz gain, hozkadaren maneiarekin lagun diezagukete, eta hozkaden aurkako serumak duten gertueneko zentroa aurki dezakete.

d. BIGARREN MAILAKO BALORAZIOA

Kasu honetan, hozkadan jarriko dugu arreta, baina ez dugu ahaztu behar noizean behin berriro balorazio orokor bat egitea (kontzientzia-maila, arnasa, zirkulazioa...).

Kontuan izan shock bat eta bihotz-biriketako geldialdi bat izan dezakeela (zoritarrez, shock anafilaktiko bat eragiten badu hozkadak, edo berehala hiltzeko gaitasuna duen espezie pozoitsu exotikoren bat bada)

Bolaluma edo antzeko zerbaitekin markatu daiteke hozkada eta hantura ingurua, berorren eboluzioa ikusteko gero. Aldian behin, markatu berriro, eta idatzi denbora.

Eraztunak, erlojuak edo estutzen duten arropak ken daitezke, hantura gero eta handiagoa bada (hausturetan bezala).

e. EZ EGIN MIN GEHIAGORIK:

Ebakiak egiteak, izotza edo beroa jartzeak, kataplasmek, belarrek, substantzia kimikoek, elektrodoek, alkoholak edo estimulatzaileek ez dakarte inolako onurarik, eta egoera larriagotu dezakete.

f. EZ DA KOMENI HURRUPATZEA

Ez da eraginkorra, eta ehunetako lesioa areagotu dezake.

g. DESINFEKZIOA:

Ez da komeni zauria gehiegi ukitzerik; nahikoa da antiseptiko topiko bat ematea, hobe koloreztatzen ez badu (Clorhexidina), edota ura eta xaboia erabiltzea.

h. KONSTRIKZIO-BANDAK ETA TORNIKETEA:

Ez dira erabili behar ahal bada, tokiko lesioaren ezaugarriak okerragotzen baitituzte, eta ez dago frogatuta emaitza hobetzen dutenik.

IMMOBILIZAZIOA ferularekin edo antzeko zerbaitekin, eta ATSEDENA:

Mina, edema eta odol-galera gutxitu egiten dira.

i. KONPRESIO-BENDAJEA:

Egokia da tokiko nekrosirik eragiten ez duten suge-hozkadetan. Krepezko benda elastikoarekin egiten da (orkatilararen bihurrituan bezala, adibidez). Toxina neurotoxikoen barreiadura saihestea da helburua.

Pozoi nekrosatzailea duen espezie baten hozkadaren kasuan (Asiako eta Afrikako sugedorri eta kobra batzuk), inguruaren konpresioak eraginak areagotu ditzake, eta tokiko lesioa okertu dezake.

Kasu guztietan, ferula edo antzeko zerbaitekin immobilizatu behar da, eta atal hori atsedenean eduki behar da, zaintza egokiak eta hozkaden aurkako seruma lortu arte, hala behar izanez gero.

j. MINAREN KONTROLA:

Immobilizatzea da lehena.

Parazetamola lagungarri izan daiteke (Termalgin, adibidez), baina ez hartu aspirinarik edo ibuprofenorik.

3. FLUIDOAK/LIKIDOAK:

Garraiorako epeak luzeak badira eta zain barneko serum bidezko terapiarik ez badugu soilik utziko diogu zaurituari likidoak hartzen (solidoak ez), eta goragalerik edo okadarik eragiten dion ikusiko da (horrelakorik badu, ez utzi likidorik hartzen). (Kasu horretan, lagungarri izan daiteke gaza garbi bat urez busti eta miazkatzeko ematea, ahoko lehortasuna sentitzen badu).

4. GARRAIOA:

Ez da atzeratu behar lehen sorospeneko inolako baliabiderengatik.

Hozkada guztietan, ezinbestekoa da medikuek baloratzea eta ospitaleko zaintza jasotzea.